



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, PASAIAKO UDALAREN 2005-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Pasaiako Udalaren 2005eko ekitaldiaren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Udalaren fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere. Eta berebat, HKEEren lanak udalaren Erakundeen Administrazioa ere barne hartzen du.

Legezkotasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Diru-laguntzei dagokienez, Erakunde Fiskalizatzaileak adierazi du Trintxerpeko goialderako sarbide berrien kostu guztiaren gainean jasotako diru-laguntzen % 50eko muga gainditu dela eta honek diru-laguntzaren emakida arautu zuen foru dekretua urratu du. Jasotako diru-laguntzen ehunekoak, obraren kostuaren % 87 egin du.

Udalaren Lanpostuen zerrendak Euskal Funtzio Publikoaren Legea urratzen du, izan ere, ez baititu adierazten funtzionarioen lanpostuei esleitutako berariazko eta destino osagarriak.

Administrazio kontratazioari dagokionez, txostenak azpimarratu du zuzeneko esleipena erabili dela publizitate eta lehia printzipioak gorde gabe obra kontratu batean eta laguntza teknikoa emateko 8 kontratutan. Beste kasu batean kontratu baten aldaketa azpimarratu nahi izan da, duen garrantzia ikusita, izan ere lehiaketa prezioaren % 50a egiten baitu; honek APKLTB erdiz-erdi urratzea dakar, kontratuaren objektua desitxuratu baita. Halaber, txostenean berariaz azpimarratu da etxerako laguntza zerbitzua emateko epea gainditu dela, 10 urtekoa zena, 9 hilabetez luzatu dena berriz ere lizitazioa bideratu gabe.



Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEK aldeko iritzia eman du kontuaren aurkezpen eta edukiari dagokionez, bi salbuespen egin dituela: Bata, ibilgetuko gaien ondasun-zerrendarik ez izateagatik; eta bestea, Diruzaintza Geldikina 1,3 milioi euroan gehitzea eragin duten kontabilitateko hainbat zuzenketa egiteagatik, 2,6 milioi euroan jarri dutenak.

Pasaia Musical, udal Euskaltegia eta Zaharren Udal Egoitza Erakunde autonomoi dagokienez, Epaitegiak uste du zuzentasunez bete dutela ekonomia-finantzaren kudeaketan indarreko araudia, hainbat akats egin dituztelarik administrazio-kontratazioaren eta langileen kudeaketa alorrean. Berebat, Epaitegiak aldeko iritzia azaldu du erakunde hauek aurkeztu dituzten kontuen gainean, baina ondasun-zerrendarik ez dutela dio eta horietako biren kontuetan doiketa bat egitea proposatu du.

Halaber, HKEEK bai udalean, bai erakunde autonomoetan, barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Amaitzeko, finantzaren egoerari dagokionez adierazi da Pasaiako Udalak aurre egin behar izan duen inbertsio maila altuaren ondorioz, aurrezki gordin positiboa izan arren (Sarrera Arruntak – Gastu Arruntak – maileguen amortizazioa) eta diru-laguntza kopuru handia jaso arren, Udalak zorpetze bidea erabili behar izan duela.